

BAZTAN**Laburpena, 2018an Baztango kirol klubek ohiko kirol jarduerak egiteko diru-laguntzena**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da deialdiaren laburpena; haren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (identifikazioa): 417548.

Baztango Udaleko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 21ean egin bilkuran, onetsi zituen Baztango kirol klubek ohiko kirol jarduerak egiteko diru-laguntzen 2018ko deialdi publikoaren oinarri arautzaileak.

Lehena.—Onuradunak.

Oinarri hauen xede diren diru-laguntzak jaso ditzakete egoitza soziala Baztanen duten kirol klubek.

Bigarrena.—Xedea.

Oinarri hauen xedea da egoitza soziala Baztanen duten kirol klubei diru-laguntzak norgehiagokako araubidean ematea arautzea, ohiko kirol jarduerak egin ditzaten.

Hirugarrena.—Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/sites/56/2018/10/deialdi-argitaratua.pdf>.

Laugarrena.—Eskaerak aurkezteko epea.

Diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izanen da. Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

Baztanen, 2018ko irailaren 21ean.—Alkatea, Joseba Otondo Bikondoa.

Iragarkiaren kodea: L1812075